

# LAZKAO

| # 08 | 2017 MARTXOA |




LAZKAOKO  
UDALA

## *Festak ate joka daude Ya llegan las fiestas*

UDALAK KONTUAN HARTZEKO  
HIRU MEZU HELARAZI NAHI DITU

EL AYUNTAMIENTO QUIERE  
TRANSMITIR TRES MENSAJES  
A TENER EN CUENTA

## hirigintza



### » Gurutzeko Auzoa

## Datozen hilabeteetan hasiko dira urbanizazio lanak

Aurreko udal aldizkarietan Gurutze 1-6 eta Hirigoien 12-32 eremuko urbanizazioa berritzeko lanak jasotzen dituen proiektuaren berri eman izan da. Proiektu honetako lanak gauzatzeko hainbat fase aurreikusten dira, eta guztira 3.259.910 euroko aurrekontua dauka. Proiektua gauzatzeko hasteko, lehenengo faseari dagozkion kontratazio espedientea eta lizitazio deialdia onartu zituen udalak otsaileko osoko bilkuran. Agauntza ibaiaren eta Gurutze 1-6 artean dagoen eremuan hasiko dira lanak. Fase honen aurrekontua 925.000 eurokoa da, eta lanak gauzatzeko epea, berriz, sei eta zortzi hilabete artekoa izango da.

Esan bezala, Agauntza eta Gurutzeko dorren arteko pasealekua, bidea, aparkalekua eta azerak berrituz eta egokituz hasiko dira lanak. Azaleko berritzeaz gain, ordea, lanik garrantzitsuena azpiegituren berritzeak suposatuko du.

Beraz, egun inguruan dauden irisgarritasun eta argiteria arazoei konponbidea emateaz gain, lur azpitik doazen ur hornidura, argiteria eta saneamendu sareak erabat berrituko dira.

idura, argiteria eta saneamendu sareak erabat berrituko dira.


Azaleko lanei dagokionez, irisgarritasuna bermatzeaz gain, pasealeku, aparkaleku eta bidearentzat, antzeko espazioak mantentzen dira, beti ere, guztiak egokitu eta bukaera egokia emanez. Landareriari eta zuhaitzei dagokionez ere, guztiak berritu egingo dira.



*Gaur egun inguruan dauden irisgarritasun eta argiteria arazoei konponbidea emateaz gain, lur azpitik doazen ur hornidura, argiteria edo saneamendu sareak erabat berrituko dira*

### » San Inazioko zubia





## Los próximos meses se comenzarán los trabajos de reurbanización

En anteriores publicaciones, el Ayuntamiento ha dado cuenta de la redacción de proyecto de reurbanización de la zona que abarca Gurutze 1-6 e Hirigoien 12-32. En este proyecto se prevé que la ejecución de los trabajos de reurbanización se lleven a cabo en distintas fases, y el presupuesto global del mismo es de 3.259.910 euros. Para comenzar con la ejecución de dichos trabajos, en el pasado pleno de febrero, el Ayuntamiento aprobó el inicio del expediente de contratación que corresponde a la primera fase. Los trabajos de esta fase corresponden a la reurbanización de la zona existente entre el río Agauntza y las torres de Gurutze. Su presupuesto es de 925.000 euros, y el plazo de ejecución que se prevé para los mismos es de seis a ocho meses.

Como ya se ha indicado, los trabajos comenzarán con la adecuación y remodelación de las aceras, vial y paseo existente entre el río Agauntza y los edificios de Gurutze. Los trabajos más importantes corresponderán a la renovación de todas las infraestructuras. Por tanto, con estos trabajos, además de dar solución a los problemas de accesibilidad o iluminación existentes en la zona, se procederá a

la renovación de todas las redes de agua, alumbrado y saneamiento.

En lo relativo a los trabajos de superficie, además de garantizar la accesibilidad, se mantendrán y se tratará de dar un adecuado acabado manteniendo los actuales espacios de aceras, paseos, aparcamientos y vial. En lo relativo a jardinería y arbolado, la reforma también será total.

|| *Con estos trabajos, además de pretender dar respuesta a los problemas de accesibilidad e iluminación que presenta la zona, se renovarán totalmente las redes de agua, alumbrado y saneamiento*

San Inazioko zubian oinezko, txirrindu eta ibilgailuen arteko joan-etorrian sortzen diren eragozpenak eta arriskuak ekiditeko helburuarekin, zubiaren zabalera bi aldeetara zabaltzeko proiektua exekutatu da. Proiektua gauzatu ahal izateko 200.000 euroko partida egokitu da.

Helburua lortzeko, bi norazko hartuko dituen zazpi metro zabaleko errepidea mantenduko da, 3,5 metro zabalera bi errailekin. Areso aldera 2,35 metro gehiago zabalduko da zubia, eta Hirigoien aldera 4,40 metro. Hala, Areso aldera hiru metro pasatxoko espaloia geratuko da lanak amaitu ondoren.

Hirigoien alderako zatian bidegorria ere eraikiko da, bi metro pasatxoko zabalera, eta errepidearen altuera berean kokatuta. Ibilgailuen errepidetik bereizteko hormigoizko bereizgarri bat jarriko da.

Lanak amaitu ondoren, errepide zatia zazpi metro zabalera izango da. Beraz, zubi berriak guztira 15 metro pasatxoko zabalera izango du (gaur egun 10 metroko zabalera dauka).

En el puente de San Ignacio se ampliará la anchura del puente a ambos lados, para conseguir dotar al puente de unas secciones adecuadas que garanticen la seguridad para el tráfico peatonal, de bicicletas y de vehículos a motor. Se ha habilitado una partida de 200.000 euros para la ejecución de este proyecto.

Para ello, se mantendrá el vial de siete metros para el tráfico en dos sentidos, con dos carriles de 3,5 metros en cada sentido. Hacia Areso se ampliará el puente 2,35 metros, y en el lado opuesto, hacia Hirigoien, 4,40 metros. Una vez terminados los trabajos, quedará una acera de más de tres metros hacia Areso. En cuanto al espacio contrario, también se creará un carril para bicis de más de dos metros, ha cota del vial. Se separarán los viales mediante un encintado de hormigón.

Una vez finalicen los trabajos, quedará una carretera de siete metros, la cual se unirá a la acera de San Ignacio. En total, la anchura del puente será de alrededor de 15 metros (hoy en día es de 10 metros de ancho).

## hirigintza

» Hiribarren kalea

### Hiribarren kaleko lanak amaitzear daude

Iturgaitzagako urbanizazio proiektuaren barruan, hirugarren faseari dagozkion Hiribarren kaleko lanak amaitzear daude. Inguru berurbanizatzeko lanetan azaleko berritze lanez gain lur azpiko azpiegiturak ere berritu dira: argiteria sarea, ur hoditeria eta ur sarea, besteak beste. Hala, Zapatari etxearen eraistearrekin, etxebizitza berrien eta aurrez zeudenen aurrealdean espaloizabal bat geratu da.

Errepidea ere berritu da eta herrirako sarrera polit bat egokitu da inguruan, aurrez Beneditarren artxibo paretik herrigunera berrituta zegoen zatiarekin bat eginda.

Laugarren faseari dagozkion lanak, berriz, martxan daude. Proiektu honekin saihesbidea Lazkaomendi aldera desplazatu da, eta Lazkaomendiko bidegurutzean eraikitako biribilguneetik erdiguneraino, bi norabidetako bidea eta bidegorria eraikiko dira. Era honetara, Maizpideraino irekita dagoen bidearekin bat egingo du eremu berriak.

Lan hauen exekuzioa aprobetxatuz, Lazkaomendirako oinezkoen pasoa egiteko proiektua ere gauzatuko da.



*Inguru berurbanizatzeko lanetan azaleko berritze lanez gain lur azpiko azpiegiturak ere berritu dira*

» San Jose auzoa

### Mantenu lanak egin dira San Jose auzoan Se han realizado trabajos de mantenimiento en San José

Iaz Gurutze eta San Prudentzio auzoetan egin bezala, azken asteetan hainbat mantentze lan egin dira San Jose auzoan. Besteak beste, hiri altzariak eta barandak margotu dira. Lazkaoko Udalak herriko hainbat gune balioan jartzeko iaz hasitako lanen barruan egin dira lan hauek.

Tal y como el año pasado se hizo en los barrios Gurutze y San Prudentcio, estas últimas semanas se han realizado varios trabajos de mantenimiento en el barrio San José. Entre otros trabajos, se han pintado los muebles urbanos y barandillas. Los trabajos se han realizado con el objetivo de incentivar el valor de los barrios.



### A punto de finalizar los trabajos de urbanización de la calle Hiribarren

Dentro del desarrollo urbanístico del ámbito de Iturgaitzaga, prácticamente ya han finalizado los trabajos de la tercera fase, correspondientes a la calle Hiribarren. Además de los trabajos de reurbanización en la superficie, se han adecuado las infraestructuras de la zona para mejorar el alumbrado y la red de saneamiento.

El derribo de la casa Zapatari, ha permitido la apertura de una amplia acera junto a las viviendas de nueva construcción y las ya existentes, que junto con la reposición del vial permiten disponer de una bonita entrada al municipio.

A su vez, la cuarta fase de las obras ya está en marcha. Mediante este proyecto se desplaza el desvío hacia Lazkaomendi, y desde la rotonda construida en el cruce de Lazkaomendi hasta la mitad de la carretera se creará un carril de dos direcciones y un nuevo bidegorri. Así, este tramo se enlaza con la carretera abierta hasta Maizpide.

Aprovechando la ejecución de estos trabajos, se está ejecutando el proyecto para el paso de peatones hacia Lazkaomendi.



# MARTXOAK 8 DE MARZO

Emakumeen Nazioarteko Eguna / Día Internacional de las Mujeres



**E**makumeen Nazioarteko Egunarekin bat egin du aurten ere Lazkaoko Udalak, Azki emakumeen elkartearekin, Gaztelekuarekin eta San Benito Ikastolarekin elkarlanean. Martxoaren 8aren bueltan antolatu zituzten ekintzek dagozuen egunetan izango dute jarraipena.

San Benito Ikastolako batxilergoko ikasleek horma irudi bat egingo dute Maider Urretabizkairen laguntzarekin, eta DBHo ikasleei zuzenduta tailerrak antolatuko dira berdintasuna eta iritzi kritikoa uztartzeko.

Gaztelekuan autodefentsa tailerra egin berri dute, eta genero tailerra egingo dute martxoaren 18an eta 19an. Emakumea eta kirola uztartuko dituen mahai ingurua ere egingo da, udalak eta gaztelekuak bultzatuta. Martxoaren 25ean izango da, 18:00etan, eta herritar guztiei irekita egongo da. Alazne Furundarena, Ane Garmendiak, Uxue Garmendiak, Itsaso Estalak eta Enara Cachok parte hartuko dute. Aurkezle eta moderatzaile lanetan Ane Murumendiaraz arituko da.

Berdintasun batzordearen lan ildoak emakumeen ahalduzkoen alorrera zuzenduta dago, eta berdintasun plan bat martxan jartzeko lanean ari dira Berdinbideanekin lankidetzan. Lazkaoko Udalak herriko eragileekin elkarlanean jarraitu nahi du, herritarren inplikazioa bultzatzeko.

Martxoaren 8aren ondoren, urtean zehar iritsiko diren beste data esanguratsu batzuetarako ekintzak prestatzen jarraituko du Lazkaoko Udalak.

**U**n año más, el Ayuntamiento de Lazkao se unido a las reivindicaciones del Día Internacional de las Mujeres. Este año, lo ha hecho conjuntamente con la asociación de mujeres Azki, el Gazteleku y la Ikastola San Benito. Además de los actos organizados entorno al 8 de Marzo, están previstas más actuaciones para los próximos días.

El alumnado de bachiller de San Benito realizará un mural con la ayuda de Maider Urretabizkaia, y el alumnado de ESO participará en varios talleres donde trabajará la igualdad y la opinión crítica.

Por otra parte, en el Gazteleku han realizado un taller de auto-defensa y el 18 y 19 de marzo harán otro basado en el género. Además, para el 25 de marzo han organizado una mesa redonda sobre la mujer y el deporte, donde participarán Alazne Furundarena, Ane Garmendia, Uxue Garmendia, Itsaso Estala y Enara Cacho. La dinamizadora de la mesa será Ane Murumendiaraz. Es un acto organizado conjuntamente por el ayuntamiento y el Gazteleku, y estará abierto al público. Será a las 18:00.

La Comisión de Igualdad trabaja encaminada hacia el empoderamiento de la mujer, para lo cual está definiendo un plan de igualdad con ayuda de Berdinbidean. El Ayuntamiento de Lazkao desea seguir trabajando con las asociaciones de Lazkao, para así impulsar la participación ciudadana.

Después del 8 de Marzo, la Comisión de Igualdad seguirá encaminando su trabajo a organizar más actividades para otras fechas significativas del año.

## Merkataritza eta ostalaritza guneak berritzeko diru laguntza emango du udalak



## Aprobadas las bases reguladoras para la concesión de subvenciones para comerciantes y hosteleros



**L**azkaoko Udalaren 2015-2019 kudeaketa planaren barruan zehaztutako helburu nagusien artean dago herriko ekonomia sustatzea. Horretarako, ezinbestekotzat du merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu mailan herriko eragileekin elkarlana bultzatzea, sektoreak herriko ekonomian aberastasuna eta enplegua sortzen dituelako. Hala, udalak merkataritza eta ostalaritza sustatzeko diru laguntzen oinarriak onartu ditu. Gehienez 10.000 euro bideratuko ditu aurten udalak diru laguntza honetara.

Diru laguntzak 2017an Lazkaon irekitako merkataritza eta ostalaritza jarduera berritzeko eta indarrean dauden jardueretan urtean zehar egindako berritze eta modernizazio lanetan laguntzeko izango dira. Jarduera Ekonomikoaren Gaietako Zergan alta emanda duten Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueren titularrek eskatu dezakete laguntza udalarekin, abenduaren 31 baino lehen.

Irekitze berria izateagatik 250 euroko zenbatekoa finkatu du udalak, eta lokalak egokitzeagatik justifikatutako gastuen %12 (gehienez 1.000 euroko mugarekin). Honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria beteta eta sinatuta.
- Diru laguntza xede izango den jardueraren eta aurrekontuaren deskribapena.
- Eskatzaileak zabalduetako kontu korronte baten jabe dela erakusten duen agiria.
- Beste diru laguntza eskaeren zein jasotakoekin berri ematen duen zinpeko aitortpena.
- IFK edo NAN dokumentuen fotokopia.
- Diru laguntza elkarte batek eskatzen badu: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak...

Tokiko ekonomia sustatzeaz gain, eta merkataritza dagoen tokian bizia dagoela kontuan hartuta, herria girotea da udalaren helburua, Lazkaok herri bizi bat izaten jarraitu dezan.

**U**no de los principales objetivos del plan de gestión del Ayuntamiento de Lazkao es la promoción de la economía de Lazkao. Con esta premisa, y considerando la importancia que el sector de servicios tiene en el desarrollo del municipio, el ayuntamiento quiere fomentar la relación con los sectores comercio y hostelería. Para ello, la el ayuntamiento ha aprobado las bases reguladoras para la concesión de subvenciones dirigidos a comerciantes y hosteleros. El ayuntamiento ha fijado una cantidad máxima de 10.000 euros para estas subvenciones.

El objeto de esta convocatoria es la regulación de la concesión de subvenciones y ayudas en el ejercicio 2017 para la promoción de nuevas actividades de comercio y hostelería de Lazkao, así como la renovación y modernización de las ya existentes. Podrán solicitar esta ayuda los titulares de actividades comerciales y hosteleras de Lazkao que se encuentren dados de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. Las ayudas se pueden pedir en el ayuntamiento hasta el 31 de diciembre.

El ayuntamiento ha fijado un importe fijo para las nuevas aperturas, de 250 euros; y un importe variable para la adecuación de locales del 12% del gasto justificado, con un máximo de 1.000 euros. Para pedir la subvención hay que presentar la siguiente documentación:

- Solicitud normalizada, debidamente cumplimentada y firmada.
- Descripción del proyecto y presupuesto para el que se solicita la ayuda.
- Justificante de una entidad bancaria en la que se haga constar que el solicitante es el titular de una cuenta.
- Declaración jurada que conste las solicitudes de subvención formuladas a otros departamentos o en su caso de las que estuvieran otorgadas.
- Fotocopia del CIF o DNI
- Si el solicitante es una asociación, detalle de los miembros, objetivos, actividades que desarrollan...

Además de promover la economía, ante la certidumbre de que donde hay comercio hay vida, esta relación busca también ambientar la vida del municipio, y así darle vida.

# Ezagutu Lazkaoko eskaintza

## Conoce la oferta de Lazkao



*Denon artean  
Lazkao herri  
dinamiko eta  
bizia izaten  
jarrai dezan  
lanean segi  
behar dugu*

**H**erriko merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta enpre- sen jarduerak babestea, indartzea eta ezagutzera ematea da "Lazkao. Ezagutu gure eskaintza" kanpainaren helburua. Herriko merkatariek, ostalariek eta zerbitzuetako arduradunek beraien jarduerari buruzko informazioa eman zezaten jarri zen abian iazko abenduan kanpaina hau, eta orduz geroztik hiru hitzaldi antolatu dituzte: Nahikirik antolatuta bikote harremanak konstelazio familiarren ikuspuntutik aztertzen zituena, Ekilore dendak antolatuta Bach loreen onurei buruzkoa, eta Iztuetakoek esnari buruz hitz egiteko antolatu zutena.

Herriko dendek eta zerbitzuek duten garrantzia azpimarratzea garrantzitsua da, sortzen duten aberastasuna eta herriari ematen dioten bizitza ukalezina baita. Hala, herrian erosteko kontzientzia zabaltzeko bide bat dira proiektuaren barruan antolatzen diren jarduerak. Kanpaina honi esker herriko eta inguruetako bizilagunek Lazkaoko eskaintza gertu- gotik ezagutzeko aukera dute.

**L**a campaña "Lazkao. Ezagutu gure eskaintza" tiene como objetivo impulsar y dar a conocer la actividad comercial, hostelera y de servicios que ofrecen las empresas de Lazkao. Desde diciembre del año pasado, varios comerciantes del municipio han organizado charlas, en las cuales se han tratado temas muy diferentes, pero todas relacionadas con las actividades que estas empresas impulsan. Nahikiri organizó una charla sobre las relaciones de pareja desde la perspectiva de las constelaciones familiares; Ekilore organizó otra charla sobre las flores Bach y los de Iztueta hablaron sobre los beneficios que tiene la leche y su utilización.

Es imprescindible poner en valor la importancia que tienen las empresas de Lazkao, ya que es irrefutable la riqueza que aportan y la vida que le dan al municipio. Por eso, las actividades que organizan están dirigidas a la concienciación de los habitantes hacia el pequeño comercio y el consumo en el municipio, ya que dan a conocer sus servicios tanto a los lazkaotarras como al resto de habitantes de la comarca.

*Entre todos  
debemos seguir  
trabajando para  
que Lazkao  
 siga siendo  
un municipio  
dinámico.*



# San Prudentzio jaiak iristear daude!

Kontuan izatea nahi ditugun hiru mezu helarazi nahi ditugu herriko festei begira

## ¡Las fiestas de San Prudencio están al caer!

Queremos trasladar tres mensajes a tener en cuenta en fiestas

**S**an Prudentzio jaiak gero eta ger- tuago daude. Aurten, apirilaren 21etik 23ra eta 27tik maiatzaren 1era arte izango dira, eta Lazkao- mendikoak maiatzaren 6an eta 7an. Egitarauaz harago, bada festa guztiontzat festa izan daitezen aurrez landu beharreko hainbat kontu. Lazkaoko Udalak hiru mezu azpimarratu nahi ditu aurten ere San Prudentzio jaietara begira: lo dau- den bizilagunekiko errespetua izatea, alkohol kontsumo arduratsua egitea eta eraso sexistarik ez egotea.

Udalak argi du helburu hauek betetzeko ezinbestekoa dela denen parte hartzea, inplikazioa eta lana, eta hala, kuadrillan, etxean edo familian gai horiei buruz aurrez hitz egitea garrantzitsua dela iriz- ten dio. Festen aurretik eta jaiak anto- latzerakoan, gogoetek eta solasaldiek kontzientziatzeko eta arriskuen jabe izateko balio dezaketela uste du udalak, eta hala egitera gonbidatzen du.

Sanprudentziotako lehen asteburuan mozorroek protagonismo handia izan- go dute. Modu espontaneoan haziz joan da egun horretan mozorroaren osaga- rri diren karrozen eta jaimen erabile- ra, eta horrekin arriskuek ere gora egin dute. Arriskuak saihesteko eta zaratak,

istripuek edo energia sorgailuek sor ditzaketen arazoak ekiditeko guztion ahalegina ezinbestekoa da. Horregatik, udalak partaide guztien kolaborazioa eskatu nahi du.

Mozorro egunerako aurreikuspena egin nahi da; zein neurri hartu behar diren eta zein baliabide bideratu beharko diren zehazteko. Festa batzordetik jaso- tako ekarpenak kontuan hartuta, ego- ki ikusi da jaimak mozorro egunarekin lotura izatea; hau da, jaimak mozoa- rren gaiarekin uztartzea eta integratzea. Bestelako asmo batzuk ere aztertzen ari dira: generadoreen arriskua ekiditeko argindarra jartzeko aukera, jaimak har- tuko duten kokapena aztertzea...

Gauzak horrela, mozorro egunean ka- rrozak, ibilgailu motorizatuak edo jai- mak erabili behar dituztenen zerrenda aurrez osatzea ezinbestekoa izango da. Beraz, aipatutako elementuren bat erabi- li behar duten kuadrillei inprimaki bat betetzeko eskaera egitea erabaki da. In- primakia aldizkari honekin batera helar- azi da, edo udaletxean eskura daiteke. Kuadrilla bakoitzak inprimakia bete eta udaletxera eraman beharko du apirila- ren 7a baino lehen.

**E**ste año, las fiestas de San Pruden- cio serán del 21 al 23 de abril y del 27 al 1 de mayo. El fin de se- mana siguiente, el 6 y 7 de mayo, se celebrarán las fiestas de Lazkaomen- di. Más allá del programa, y para que las fiestas sean fiestas para todos, hay temas que merecen ser tratadas de antemano. Desde el Ayuntamiento queremos trasla- dar tres mensajes: respetar el sueño de los vecinos, que si se consume alcohol se haga de manera responsable y que no haya agresiones sexistas.

Tenemos claro que para lograr estos ob- jetivos es necesaria la participación, implicación y trabajo de todos. Vemos oportuno realizar una labor previa en la cuadrilla, en casa o en la familia. Creemos que una reflexión, una conversación pre- via al ambiente festivo, a la hora de plani- ficar las mismas, puede resultar positiva para darnos cuenta de los riesgos e inco- venientes que ciertos comportamientos acarrear.

El primer fin de semana de fiestas, los principales protagonistas serán los dis- fraces. La tradición de acompañar a los disfraces con carrozas y jaimas ha creci- do de manera espontánea en los últimos años, y junto con ellos los problemas que acarrear. Para evitar ruidos, accidentes y riesgos que puedan acarrear los genera- dores, es necesario un esfuerzo por parte de todos, por lo que desde ayuntamiento pedimos colaboración.

Se pretende hacer una previsión de cara al día de los disfraces, ver qué medidas se pueden adoptar y qué recursos hay que destinar. Teniendo en cuenta las apo- rtaaciones realizadas por la comisión de fiestas, se cree oportuno que las jaimas tengan que estar integradas al disfraz que elijan los integrantes de cada grupo. También se están analizando otras posi- bilidades, como por ejemplo adecuar to- mas de corriente para evitar problemas con los generadores, definir la zona en la que se coloquen las jaimas...

Para todo ello, será necesario elaborar una lista con las carrozas, vehículos a motor y jaimas que se utilizarán durante ese día. Por lo cual, pedimos a todas las cuadrillas que vayan a utilizar algún ele- mento de los mencionados que rellenen un impreso, el cual se facilita junto a esta revista o se puede obtener en el ayunta- miento. Cada cuadrilla ha de rellenar un impreso y entregarlo antes del 7 de abril en el ayuntamiento.

## Loa errespetatu

Herritar guztiek festez gozatzeko duten eskubidea bezain garrantzitsua da egun horietan lo egin nahi dutenen eskubidea kontuan hartzea. Horregatik, parrandan dabiltzanei besteen loa errespetatzeko deia egiten du Lazkaoko Udalak. Kontuan hartu behar da herrian adin eta ohitura ezberdinetako jende asko dagoela, eta festa egunak urtean zehar asko ez badira ere, deskantsurako eskubidea errespetatzea ezinbestekoa da.

Kalean musika aparailuak jartzten dituztenei ordutegiak errespetatzeko eta gauerditik aurrera musikaren bolumena neurtzeko ere eskatzen du udalak. Berdin herriko tabernariei ere: goizeko ordu txikitik musika bolumena jaitsi dezatela. Udalak antolatutako ekintzetan kontuan izango da guzti hau ere.

## Respetar el sueño

Tan importante como respetar el derecho a disfrutar de las fiestas, es respetar el derecho a descansar que tienen los habitantes de Lazkao así querrán hacerlo. Hay que tener en cuenta que en Lazkao convive gente de distintas edades y costumbres, y aunque los días de fiesta sean una minoría durante el año, desde el Ayuntamiento se pide respetar el descanso de las personas que duermen.

Desde el Ayuntamiento se ruega a las personas que fija aparatos de música en la calle que se respeten los horarios y se baje el volumen de la música a partir de medianoche. Al igual, a los hosteleros se les solicita que de madrugada disminuyan el volumen de la música. En los actos organizados por el Ayuntamiento se tendrán en cuenta estas mismas medidas en cuanto a la hora de finalizar las actividades se refiere.


# Parrandan errespetatu lo dauden bizilagunak

Respetar el descanso de tus vecinos

Mila esker



LAZKAOKO  
UDALA



## Mugak gainditu gabe

Es muy común unir las fiestas con la comida y la bebida: comidas populares, lunch, almuerzos... o porque directamente se une fiesta con bebida. Por eso, el Ayuntamiento de Lazkao realiza una campaña de concienciación, sobre todo dirigido a los jóvenes.

El objetivo es evitar las consecuencias que puede acarrear una ingesta masiva de alcohol, sobre todo en menores de edad (no hay que recordar que está prohibida la venta de alcohol a los menores). Dentro de la campaña de concienciación se difundirá un claro mensaje dirigido al esfuerzo realizado para lograr el objetivo: "Sé tú mismo, que el alcohol no te cambie".

## No rebases los límites

Es muy común unir las fiestas con la comida y la bebida: comidas populares, lunch, almuerzos... o porque directamente se une fiesta con bebida. Por eso, el Ayuntamiento de Lazkao realiza una campaña de concienciación, sobre todo dirigido a los jóvenes.

El objetivo es evitar las consecuencias que puede acarrear una ingesta masiva de alcohol, sobre todo en menores de edad (no hay que recordar que está prohibida la venta de alcohol a los menores). Dentro de la campaña de concienciación se difundirá un claro mensaje dirigido al esfuerzo realizado para lograr el objetivo: "Sé tú mismo, que el alcohol no te cambie".

# Izan zeu Alkoholak ez zaitzala aldatu

**Sé tú mismo**  
Qué el alcohol no te cambie

Mila esker



LAZKAOKO  
UDALA



## Eraso sexistarik ez

El Ayuntamiento de Lazkao lo dice claro: ni en Lazkao ni en ningún otro lugar, no a las agresiones sexistas. El ayuntamiento trabajará en la construcción de una sociedad basada en el respeto a los demás, tanto en un entorno festivo tanto como en el resto de ámbitos.

El respeto hacia las mujeres es fundamental, por lo que la posición del ayuntamiento ante insultos y actitudes y agresiones es firme: ¡No a las agresiones sexistas! ¡No, es no!

## No a las agresiones sexistas

El Ayuntamiento de Lazkao lo dice claro: ni en Lazkao ni en ningún otro lugar, no a las agresiones sexistas. El ayuntamiento trabajará en la construcción de una sociedad basada en el respeto a los demás, tanto en un entorno festivo tanto como en el resto de ámbitos.

El respeto hacia las mujeres es fundamental, por lo que la posición del ayuntamiento ante insultos y actitudes y agresiones es firme: ¡No a las agresiones sexistas! ¡No, es no!

# Eraso sexistak salatu Lazkaon ez dugu horrelakorik nahi

Denuncia el acoso sexual

Mila esker



LAZKAOKO  
UDALA



## Etxeko laguntza zerbitzua kontratatzekeo deialdia

### Contratación del servicio de ayuda domiciliaria



2013an esleitutako kontratua aurten amaitzen da, eta Lazkaoko Udalak etxeko laguntza zerbitzua kontratatzekeo lizitazio deialdia egin du. Etxeko laguntza programak eskaintzen duen zerbitzua bere kabuz baliatzeko edo famili gunea osorik mantentzeko zailtasunak dituzten familia edo pertsonen zuzenduta dago. Pertsona horien ongizate fisikoa, psikikoa edo soziala berrezartzea da zerbitzu honen helburua, prebentzio, laguntza edo errehabilitazioko banako programa baten bidez. Horrek, ahal duten bitartean beren etxean bizi ahal izateko aukera ematen die erabiltzaileei.

Kontratuaren iraunaldia bi urtekoa izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin, eta esleipena prozedura ireki bidez egingo da. Aurreko kontratuarekin alderatuta, bi aldaketa egongo dira: prezioen eguneratzea eta asteburuan zerbitzua emateko aukera.

Gaur egun 35 erabiltzaile ditu zerbitzuak Lazkaon. Azken urteetako joera mantentzen ari da aurten ere, urtez urte erabiltzaile kopurua mantendu edo pixka bat jaitsi egiten baita. Egunekeo zentroari dagokionean, Lazkaon 20 pertsonarentzako lekua dago, eta itxaron zerrenda egon ohi da zerbitzuak erabili ahal izateko. Hala nahi duten herritarrek, eskualdeko beste herriren bateko egunekeo zentrorra joateko aukera ere badute, itxaron zerrendan zain egon beharrik gabe. Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzak ere ematen ditu dependentzia dutenei zuzenduta.



*Etxeko laguntza programak eskaintzen duen zerbitzua bere kabuz baliatzeko edo famili gunea osorik mantentzeko zailtasunak dituzten familia edo pertsonen zuzenduta dago*

*El objetivo es restaurar el bienestar físico, psíquico y social de estas personas mediante programas de prevención, ayuda o rehabilitación, para que tengan opción de vivir en sus casa el mayor tiempo posible*

El contrato adjudicado en el año 2013 finaliza a fin de año, por lo que el Ayuntamiento de Lazkao a sacado a licitación el servicio de ayuda domiciliaria. El servicio está dirigido a todas las personas o familias que tengan dificultades para valerse por sí mismas o para mantener el núcleo familiar. El objetivo es restaurar el bienestar físico, psíquico y social de estas personas mediante programas de prevención, ayuda o rehabilitación, para que tengan opción de vivir en sus casa el mayor tiempo posible.

La duración del contrato será de dos años, con opción de ampliar por otros dos más. La licitación se hará mediante procedimiento abierto. Respecto a la anterior adjudicación junto con la actualización de los precios, la principal novedad es la posibilidad que recogen los pliegos de ofrecer el servicio durante los fines de semana.

A día de hoy en Lazkao hay 35 usuarios del servicio de ayuda domiciliaria. En los últimos años se ha mantenido el número,

incluso la tendencia es ir hacia abajo. En cuanto al centro de día, Lazkao cuenta con 20 plazas, las cuales están cubiertas, por lo que suele haber lista de espera. Los usuarios que así lo quieran, tienen la opción de pedir plaza en otro centro, sin tener que esperar a una plaza vacante en Lazkao. La Diputación Foral de Gipuzkoa también otorga ayudas a las personas con dependencia.



## Kiroldegiko zerbitzua lehiaketara aterata da

**D**atozen bi urteetarako herriko kiroldegia kudeatuko duen zerbitzu jardura kontratatzeko prozedura jarri du abian udalak. Irailean amaituko da duela lau urte esleitutako kudeaketa zerbitzua, beraz, beharrezkoa da lizitazio berri bat egitea. Joxemiel Barandiaran kiroldegiak eguneroko martxan jarrai dezan egin beharreko lanen ardurak izango du kontratadunak: kiroldegiko sorospen zerbitzua ematea, kirol ikastaroetako monitoretza ematea, bezeroei harrera eta informazio zerbitzua ematea, kiroldegiko administrazio lanak egitea, kiroldegiko gune, instalazio eta zerbitzu guztien kontrola, zainketa eta jarraipena egitea, igerilekuko uraren mantentze lanak egitea, eta makineriaren jarraipena egiteko zerbitzuak eskaintzeko kontratua esleitzea, besteak beste. Aurrekoan bezala, oraingoan ere kontratua bi urterako izango da, beste bi gehiago luzatzeko aukerarekin.

Udal kiroldegian igerileku estalia, gihartze gela, ziklo indoor gela, balioantzeko hainbat gela, sauna, bulderra, kantxa-pilotalekua eta kanpoaldean estali gabeko beldar artifizialezko tenis pista daude erabiltzaileen eskura, eta urte guziko zerbitzu edo instalazio hauez gain uda partean igerileku estaligabeak ere bai, aisiarako gune berde eder batekin.

Urtean zehar ugari dira adin eta gustu ezberdinetarako antolatzen diren ikastaroak: soinketa, pilates, ziklo indoor, GAP, zunba, igeriketa...

Gaur egun 2621 bazkide daude Joxemiel Barandiaran kiroldegian: 1261 emakume eta 1360 gizon. Uda garaian, gainera, kanpoko igerilekua irekitzen denean, batez beste 500 bazkide berri izaten ditu kiroldegiak gari horretarako.

Gehien erabiltzen diren zerbitzuen artean daude, bestalde, kantxa, igerileku estalia eta gihar gela. Kantxa eskolarekin eta herriko kirol taldeekin oso lotuta dago, soinketa, eskola kirola edo entrenamendu saioak bertan egiten dituztelako. Gihar gelari dagokionean, azken urteetan aldaketa nabarmena eman da, erabilerak gora egin duelako eta erabiltzaileen profila ere aldatzen joan delako.

## El servicio del polideportivo sale a licitación

**E**l mes de septiembre vence el contrato para la gestión de los servicios del polideportivo que se adjudicó hace cuatro años. Por ello, el Ayuntamiento de Lazkao ha aprobado sacar a concurso público la licitación del servicio del polideportivo Joxemiel Barandiaran. El contratado tendrá la obligación de dar los servicios necesarios para el buen funcionamiento diario del polideportivo, que serán tareas como ofrecer servicio de socorro, contratación de monitores para los cursos, ofrecer servicio de asistencia e información a los socios y usuarios, gestionar los trabajos administrativos, el control de todas las instalaciones y servicios del polideportivo, trabajos de mantenimiento en la piscina, y la licitación del contrato de seguimiento de las máquinas. Al igual que el anterior, este contrato tendrá una duración de dos años, prorrogables a otros dos años.

En el polideportivo, los usuarios disponen de una sala de musculación, una sala de ciclo indoor, sauna, bulder, una cancha o frontón y una pista de tenis junto con otra sala polivalente. Además, en verano, también cuentan con piscinas exteriores con un amplio jardín para el ocio. La oferta de cursos que se ofrecen a los usuarios es variada: gimnasia, pilates, ciclo indoor, GAP, zunba, natación...

En la actualidad, el polideportivo tiene 2621 socios y socias: 1261 mujeres y 1360 hombres. Esta cantidad aumenta con alrededor de 500 usuarios más en verano, por la apertura de las piscinas exteriores.

Los servicios que más se utilizan están, por ejemplo, la cancha, la piscina de interior y sala de musculación. La utilización de la cancha está muy ligada a la escuela y a las asociaciones deportivas del municipio, ya que tanto la gimnasia, el deporte escolar o los entrenamientos se realizan en ella. En cuanto a la sala de musculación, hay que mencionar que en los últimos años ha habido cambios, ya que tanto la utilización como el perfil de los usuarios ha aumentado y variado bastante.


# LABURRAK

## KALEKO KATUEI JATEN EMATEKO LEKUAK EGOKITU DITU LAUKATUK

Laukatu elkarteak hainbat hilabete daramatza Lazkaon herrian solte dauden katuak artatzen. Kaletik jaso, beharrezko analisiak eta identifikazio lanak egin eta kalean uzten dituzte berriz. Elikatu ahal izateko guneak ere zehaztuta dituzte, jateko ontziekin. Guztira 13 gune daude, eta eskaera berezia egiten da gune horiek errespetatzeko. Hala eginda, sor daitezkeen arazoak gutxitu egingo baitira.

## LAUKATU HA HABILITADO ZONAS PARA DAR DE COMER A LOS GATOS

La asociación Laukatu lleva meses identificando a los gatos callejeros de Lazkao. Tras la identificación y el pertinente análisis, los dejan otra vez en la calle. Además los miembros de la asociación han habilitado 13 zonas específicas para dar de comer a estos gatos. Se pide que se respeten estos sitios, para así minimizar los problemas que puedan surgir.



## ARIZTI HANDI FUTBOL ZELAIAN KONPONKETAK MARTXAN DAUDE

Arizti Handi futbol zelaian hainbat berritze lan egiten ari dira: eserlekuetako baranda margotu da eta estalitako guneetan tratamendua eman da. Aldageletako eta atletismo pistako zoruan zeuden arazoak ere konpondu nahi dira. Horretarako, ohiko partidez gain, 20.000 euroko partida bat egokitu da.

## ARREGLOS EN ARIZTI HAUNDI

Se están realizando trabajos de mejora en el campo de fútbol Arizti Haundi: pintado del barandado de las gradas, tratamiento de la cubierta, solución a los problemas de suelo tanto en vestuarios como en la pista de atletismo. Para ello, además de la partida fijada, se ha adjudicado otra de 20.000 euros.

## UDALETXEKO LEIHOAK ALDATUKO DIRA

Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko helburuarekin, gaur egun udaletxean dauden leihoak berritu egingo dira. Horrez gain, udaletxearen eta kultur etxearen kanpoko pintaketa lanak ere egingo dira.

## SE RENOVARÁN LAS VENTANAS DEL AYUNTAMIENTO

Con el objetivo de mejorar la eficiencia energética del consistorio, se van a cambiar las ventanas del ayuntamiento. Además, también se pintará la fachada, tanto del ayuntamiento como de la casa de cultura.

### GAZTE KOOPERANTEENTZAT LAGUNTZAK

Lazkaoko Udalak 6.000 euroko diru partida onartu du herriko gazte kooperanteek egiten dituzten diru laguntzen eskaeretan banatzeko. 20 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako laguntza da, eta gehienez pertsonako 2.000 euro emango dira. Laguntza jaso ahal izateko beharrezkoa izango da gutxienez azken urte betea Lazkaon erroldatuta egotea eta GKE batekin harremanik ez izatea. Eskaerak ekainaren 15era arte egin daitezke, udaletxean. Epe horretan laguntza guztiak ez balira agortuko, urtea amaitu arte eskatu ahal izango dira.

### AYUDAS A JÓVENES COOPERANTES

El Ayuntamiento de Lazkao ha destinado una partida de 6.000 euros dirigida a las ayudas para jóvenes cooperantes del municipio de entre 20 y 30 años. Por persona se otorgará una ayuda máxima de 2.000 euros. Para recibir la ayuda será necesario estar empadronado en Lazkao al menos durante el último año, y no permanecer a ninguna ONG. El plazo para realizar la petición será hasta el 15 de junio. Si en ese periodo no se agotan las ayudas, se ampliará el plazo hasta fin de año.

### GIDA BAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA-GATIK LAGUNTZAK

2016an zehar gida baimena euskaraz atera zuten herritarrei zuzenduta, 1.500 euroko diru laguntza onartu zuen Lazkaoko Udalak. Autoan edo motorean ibiltzeko baimena euskaraz atera eta diru laguntza jasotzeko eskaria egin dutenak 15 izan dira. Beraz, pertsona bakoitzak 100 euroko laguntza jasoko du.

### AYUDAS POR OBTENER EL CARNET DE CONDUCIR EN EUSKERA

El Ayuntamiento de Lazkao aprobó una ayuda de 1.500 euros destinado a las personas que obtuvieron el carnet de conducir en euskara durante el año pasado. En total han sido 15 las personas que han realizado la petición, por lo que en total cada uno ha recibido una ayuda de 100 euros.



### ARERIAKO GELAK MARGOTU EGIN DITUZTE

Arerriko hainbat gela berritzeko lanak egin dira azken asteetan, tartean pintaketa lanak. Erabile-ragatik itxura txartuta zeuden eta margotu egin dira.

### SE HAN PINTADO VARIAS SALAS DE ARERIA

En las últimas semanas se han realizado varios trabajos de mantenimiento en Areria, y entre otros, se han pintado varias salas que estaban deterioradas por el uso.



Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat berritze lan egin ditu Lazkaomendirako bidean. Zehazki, egoera txarrean zegoen horma bat berritu dute, errepideari sendotasun gehiago emateko eta sor zitezkeen arazoak ekiditeko.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado varios trabajos de mejora en la carretera a Lazkaomendi. En concreto, ha renovado una pared en mal estado, reforzando así la carretera y evitando problemas que pudieran surgir en un futuro.

# LAZKAO

## Merkataritza Sustatuz Apoyando el Comercio



ORDAINDU PAGANDO 40€ → 50€ GASTATZEKO DE COMPRA



LAZKAOKO  
UDALA

2017/03/15etik 2017/04/12ra Del 15/03/2017 al 12/04/2017



Laguntzaileak:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAIALA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

Guztira 300 bono daude salgai.

Pertsona bakoitzak bono 1 gehienez.

Bonoak Lazkaoko udaletxean salgai: 9:00etatik 18:00etara.

Un total de 300 bonos a la venta.

Cada persona podrá adquirir como máximo 1 bono.

Venta de bonos en el ayuntamiento de Lazkao de 9:00 a 18:00 h.

### PARTE HARTZEN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK - ESTABLECIMIENTOS PARTICIPANTES

#### LazkaON Merkatariak

AMETS BAT  
ARRIARAN MERTZERIA  
EKILORE BELARDENDA  
GAZI GOZO  
GERRIKO  
J.GOMEZ ITURGINTZA  
KOBOLOI  
MAGALA  
MANAKO  
MIKEL OPTIKA  
MISZELANIA  
MOMO ETA BERE ESTALKIAK  
NOEMI FRUTA DENDA  
S.TILO ILE-APAINDEGIA

#### Gainontzeko Lazkaoko Merkatariak - Otros establecimientos de Lazkao

AINARA EDERGINTZA  
AINHOA ILE-APAINDEGIA  
ALBERTO SUKIA HARATEGIA  
AMATRIAIN FRUTA DENDA  
ANA BELEN ILE-APAINDEGIA  
ANA CRISTINA OLANO  
ESTETIKA-ZENTROA  
ANDERE USAINDEGI  
ARAKAMA HARATEGIA  
ARTANO ARRAINDEGIA  
COVIRAN  
DIGITAL IZAR

DISDIRA  
DISDIRA ILE-APAINDEGIA  
EGUZKILORE  
EIRE ILE-APAINDEGIA  
ERROTAUNDI  
ESTANKOA (CARMEN AGUADO)  
ESTANKOA (J.A. INSAUSTI)  
ESTHER NEIRO JOSTUNDEGIA  
GARAIZ  
GARIN  
GOLOK  
GUREA BURDINDEGIA

IRIZAR ANAIK  
IZAI PARAFARMAZIA  
JAUREGI  
KEMEN KIROL ETA OSASUN  
ZERBITZUAK  
KOXXOR  
LORENA ARRAINDEGIA  
M.BELEN ARANES FARMAZIA  
MAITTE  
MATIAS FRUTA DENDA  
NAHIKIRI  
OGI BERRI

OSKIA  
PEDRO I. PEREIRO FARMAZIA  
PELLO BIDEGAIN HARATEGIA  
PRANAQI  
ROBERTO HARATEGIA  
SM SPORT NUTRITION  
UNAI ARRAINDEGIA  
ZERIK ILE-APAINDEGIA  
ZIKLOS LAZKAO  
ZUBIAURRE ILUMINAZIOA  
ZURI ILE-APAINDEGIA